

Arrasateko Akordeoi Jaialdia

Accordion Festival of Arrasate
Festival de acordeón de Arrasate

05-07 / XII / 2025
ARRASATE - MONDRAGÓN

ÍNDICE DE CONTENIDO / AURKIBIDEA

I. PRESENTACIÓN

1. FESTIVAL DE ACORDEÓN DE ARRASATE
2. FECHAS
3. LUGAR DE CELEBRACIÓN
4. JURADO INTERNACIONAL
5. ACTOS VARIOS

II. AURKEZPENA

1. ARRASATEKO AKORDEOI JAIALDIA
2. DATAK
3. EKITALDIEN TOKIAK
4. NAZIOARTEKO EPAIMAHAIKIDEAK
5. BESTE EKITALDIAK

III. EGITARAUA / PROGRAMA

IV. SARIAK / PREMIOS

V. KONTZERTUAK / CONCIERTOS

VI. AZKEN EDIZIOKO IRABAZLEAK / GALARDONADOS DE LA ÚLTIMA EDICIÓN

VII. ELKARRIZKETAK / ENTREVISTAS

VIII. KOMUNIKAZIOA / COMUNICACIÓN

I. PRESENTACIÓN

Desde hace 51 años Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarte (antes Confederación Vasca de Acordeón) ha trabajado con el fin de fomentar el acordeón en todos sus aspectos (interpretativo, pedagógico, artístico, etcétera), con resultados muy claros en la actualidad. Tras **44 ediciones**, el festival de acordeón de Arrasate es, no solo el más importante a nivel estatal, sino que el Concurso Internacional "Arrasate Hiria" es considerado entre los tres concursos más importantes a nivel internacional. La estructura piramidal del festival de acordeón de Arrasate y la filosofía del concurso internacional de fomento del repertorio original y actual son factores que diferencian a Arrasate del resto de concursos a nivel internacional.

Así mismo, es de suma importancia destacar la relevancia que tiene la existencia de este festival para el alumnado del instrumento de las escuelas de música de Euskal Herria, considerándolo como incentivo y cita obligada en su calendario de actividades musicales. Es muy destacable la utilidad a nivel pedagógico que aporta la celebración de esta actividad de cara a la motivación de los y las estudiantes acordeón con una actividad que, de no existir, no tendría posibilidad de ser sustituida por ningún otro concurso de estas características no solo en el País Vasco sino tampoco a nivel estatal. La variedad de categorías y actividades permite que se interprete un amplio repertorio de muy diversos estilos y estéticas facilitando de esta forma la presencia de numeroso público durante la celebración de los concursos. Este año, **en colaboración con el Ayuntamiento de Arrasate**, se tiene previsto organizar actividades que permitan acercar el acordeón a la ciudadanía. Ejemplo de ello son el concierto de Fisarmónica en Blues el 4 de diciembre en el Hogar del Jubilado Abaroa o los conciertos de Vladimir Stupnikov por diferentes puntos de la península con final en Kulturate (Arrasate) el 5 de diciembre.

"ARRASATE HIRIA" NAZIOARTEKO **XXXII.** LEHIAKETA
XXXII CERTAMEN INTERNATIONAL "ARRASATE HIRIA"

**II. "ARRASATE HIRIA" NAZIOARTEKO AKORDEOI ETA
GANBARA MUSIKAKO LEHIAKETA
II CERTAMEN INTERNACIONAL DE MÚSICA DE CÁMARA
CON ACORDEÓN "ARRASATE HIRIA"**

**GIPUZKOA XLV. AKORDEOI-LEHIAKETA
XLV CERTAMEN GIPUZKOA DE ACORDEÓN**

**GIPUZKOA XXXVII. AKORDEOI-JAIALDIA
XXXVII FESTIVAL GIPUZKOA DE ACORDEÓN**

ARRASATEKO AKORDEOI JAIALDIA

2025

XXXII CERTAMEN INTERNACIONAL DE ACORDEÓN "ARRASATE HIRIA"

- Concurso de referencia para todos los acordeonistas internacionales que aspiran a una carrera de concertista.
- En los 32 años de existencia, han tomado parte acordeonistas de países como China, Rusia, Francia, Dinamarca, Grecia, Portugal, Eslovenia, Eslovaquia, Polonia, Lituania, Serbia, Alemania, Finlandia, Inglaterra, Noruega, Italia, Kazajstán, Ucrania, Letonia, Bielorrusia, Croacia, Estonia, España, Hungría, Austria, Suecia, Cataluña, Suiza y Euskadi.
- En esta edición, tomarán parte 13 acordeonistas de Euskadi, China, Bulgaria, Eslovaquia, Serbia, Finlandia, Rusia, Eslovenia, España, Lituania, Cataluña, Austria y Francia.
- El jurado estará compuesto por acordeonistas internacionales de gran renombre, como Vincent Lhermet (Francia), Stefan Hussong (Alemania), Mateja Zenzerovic (Euskadi - Cataluña), Bjarke Mogensen (Dinamarca), Veli Kujala (Finlandia) y Claudia Buder (Alemania).

II CERTAMEN INTERNACIONAL DE MÚSICA DE CÁMARA CON ACORDEÓN "ARRASATE HIRIA"

- Segunda edición del recién creado concurso de referencia para agrupaciones internacionales con acordeón que quieren presentar un proyecto artístico de música de cámara en el ámbito musical internacional.
- El concurso ha tenido dos fases: una primera Online, a modo de preselección, de la cual se han seleccionado a 5 grupos que acudirán a la final.
- La fase final tendrá lugar el sábado 6 de diciembre a partir de las 16:30 en Kulturate.
- Participarán 5 agrupaciones de Polonia, Portugal, Alemania, Croacia, Euskadi y España.
- Los miembros del jurado serán Claudia Buder (Alemania), Mateja Zenzerovic (Euskadi - Cataluña), Stefan Hussong (Alemania) y Veli Kujala (Finlandia)

XLV CERTAMEN GIPUZKOA DE ACORDEÓN

- Lugar de encuentro de acordeonistas de Gipuzkoa, Euskal Herria y el resto del estado.
- En sus XLIV ediciones, han tomado parte acordeonistas de Asturias, Aragón, Galicia, Murcia, Navarra, Castilla-La Mancha, Castilla y León, Cataluña, Madrid, Cantabria, La Rioja y Euskal Herria, entre otras.
- Comprende tres categorías: Infantil (hasta 14 años), Júnior (14-17 años) y Sénior (de 18 años en adelante). Tiene un formato similar al de los concursos internacionales importantes.
- Es el más conocido entre todos los certámenes acordeonísticos nacionales que se organizan en el estado.
- En esta edición tomarán parte 25 participantes de País Vasco, Aragón, Cantabria, Cataluña, Asturias, Galicia, Navarra, Asturias y Murcia

XXXVII FESTIVAL GIPUZKOA DE ACORDEÓN

- Carácter formativo y no competitivo.
- Abierto tanto a solistas como a agrupaciones de cámara, ensembles y una nueva categoría para acordeonistas adultos.
- Compuesto por un total de doce categorías que acogen a los participantes por edades y conocimientos.
- Esta edición acoge 370 participantes

ESTRUCTURA DEL FESTIVAL DE ACORDEÓN ARRASATE

- Los diferentes concursos que se celebran dentro de los Certámenes de Arrasate están pensados y programados siguiendo una estructura piramidal.
- Cubren todo el trayecto pedagógico tanto por edades como por niveles, facilitando y potenciando la evolución natural y el progreso musical de los estudiantes desde su primer contacto con el instrumento hasta su preparación al campo profesional.
- Atienden a las diferentes facetas de la formación de los alumnos en la música, abarcando tanto la actuación solista como la grupal.
- Comprenden diversos estilos de música, desde el folklore o el jazz pasando por la música clásica y contemporánea.

FECHAS

- Del 5 al 7 de diciembre de 2025.

LUGARES DE CELEBRACIÓN

- Teatro Amaia.
- Juan Arzamendi Musika Etxea.
- Kulturate.

JURADO INTERNACIONAL

- Veli Kujala (Finlandia): concertista y profesor de la Sibelius Academy (Finlandia).
- Mateja Zenzerovic (Euskadi - Cataluña): concertista multidisciplinar y profesora en la Escuela Superior de Música de Cataluña (ESMUC)
- Claudia Buder (Alemania): concertista y profesora en la Universidad de Música Franz Liszt de Weimar.
- Bjarke Mogensen (Dinamarca): concertista internacional.
- Stefan Hussong (Alemania): concertista y profesor de la Escuela de Música de Wurzburg (Alemania).
- Vincent Lhermet (Euskadi): concertista y profesor del Conservatorio Superior de París (Francia)

ACTOS VARIOS

- Seis **conciertos y masterclasses** entre el 29 de noviembre y el 5 de diciembre, a cargo de Vladimir Stupnikov (Alemania), **ganador del XXXI Certamen Internacional de Acordeón "Arrasate Hiria"**, en diferentes pueblos de nuestra comunidad y fuera de ella.
- **Recepción oficial** a los concursantes y al jurado internacional por parte de las autoridades locales en el Ayuntamiento de Arrasate el sábado 6 de diciembre a las 13.00h.
- **Concierto de acordeón en la Casa de Jubilados Abaroa** de Arrasate a cargo de **Fisarmonica en Blues**.
- **Kalejira** por las calles de Arrasate el día 6 de diciembre por la mañana (**grupo de txistularis Udalaxpe de Arrasate**).

- **Gala de clausura** de los Certámenes de Acordeón de Arrasate y **entrega de premios** del **XLV Certamen Gipuzkoa** y del **XXXII Certamen Internacional "Arrasate Hiria"**. Se desvelarán los nombres de los ganadores de cada categoría, y habrá actuaciones de los galardonados. Domingo 7 de diciembre a las 20.00h en el Teatro Amaia. Pequeñas actuaciones intercaladas de **Aldapeko Basque Latin Jazz** durante este acto.

II. AURKEZPENA

Duela 51 urtetik Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak (lehen Gipuzkoako Akordeoi Konfederazioa zena) akordeoia eta hau inguratzen duten aspektu guztiak garatu eta hobetzeko lan egin du, gaur egun emaitza nabarmenak lortuz. **44 edizioaren ondoren**, Arrasateko Jaialdia Estatuko garrantzitsuena izateaz gain, Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketa nazioarteko hiru lehiaketa garrantzitsuenen artean dago.

Arrasateko akordeoi jaialdiaren piramide-egitura eta nazioarteko lehiaketak daukan errepertorio originala eta garaikidea sustatzeko filosofia dira Arrasate nazioarteko gainerako lehiaketetatik bereizten duten faktoreak, besteak beste.

Era berean, ezinbestekoa da Euskal Herriko musika-eskoletako akordeoi ikasle guztientzat lehiaketa honek duen garrantzia azpimarratzea, beren musika-jardueren egutegian nahitaezko helburu eta hitzordu gisa hartzen baita. Nabarmentzekoa da lehiaketa hauek pedagogia-mailan baliagarriak direla akordeoi-ikasleen pizgarri eta motibazioari begira. Izan ere, jarduera hori ez balego, ez lukete mota horretako pareko jarduerarik izango, ez Euskal Autonomia-Erkidegoan bakarrik, ezta estatu mailan ere. Kategoriak eta jarduerak askotarikoak direnez, estilo eta estetika askotako errepertorio zabala interpretatzen da, eta, horrela, jende ugari bertaratzen da lehiaketak egiten diren bitartean. **Aurtengoan, gainera, Arrasateko udalarekin elkarlanean**, hainbat jarduera gehigarri antolatuko dira ekimen honen baitan, akordeoiaren musika herritarrei urbiltzeko helburuarekin. Horren adibide dira Vladimir Stupnikovek (XXXI Arrasate Hiria Lehiaketako garaileak) penintsula osoan zehar eta Arrasateko Kulturete Aretoan abenduaren 5an amaituko den master eskolen eta kontzertuen bira; edo abenduaren 4ean Fisarmonica en Blues Abaroa Jubilatuen Etxean eskainiko duen emanaldia.

AMAIA ANTZOKIA
TEATRO AMAIA

Otalora Lizentziaduna Kalea, 6, 20500 Arrasate, Gipuzkoa

"Arrasate Hiria" Nazioarteko XXXII. Lehiaketa
"Arrasate Hiria" XXXI Certamen Internacional

Gipuzkoa XLV. Lehiaketa
XLV Certamen Gipuzkoa

Gipuzkoa XXXVII. Jaialdia
XXXVII Festival Gipuzkoa

CASA DE MÚSICA
JUAN ARZAMENDI
MUSIKA ETXEA

Zerrajera Kalea, 8, 20500 Arrasate, Gipuzkoa

Gipuzkoa XXXVII. Jaialdia
XXXVII Festival Gipuzkoa

Gipuzkoa XLV. Lehiaketa
XLV Certamen Gipuzkoa

CASA DE CULTURA
KULTURATE
KULTUR ETXEA

Azoka Kalea, 1, 20500 Arrasate, Gipuzkoa

Gipuzkoa XLV. Lehiaketa
XLV Certamen Gipuzkoa

Gipuzkoa XXXVII. Jaialdia
XXXVII Festival Gipuzkoa

**"Arrasate Hiria" Akordeoi eta Ganbara Musikako
Nazioarteko II. Lehiaketa**
*II Certamen Internacional de Música de Cámara con Acordeón
"Arrasate Hiria"*

XXXII "ARRASATE HIRIA" NAZIOARTEKO AKORDEOI-LEHIAKETA

- Erreferentziazko hitzordua da, nazioartean kontzertuak eman nahi dituzten maila goreneko akordeoilari guztientzat.
- 32 urte hauetan, Txina, Errusia, Frantzia, Danimarka, Grezia, Portugal, Eslovenia, Eslovakia, Polonia, Lituania, Serbia, Alemania, Finlandia, Ingalaterra, Norvegia, Italia, Kazajstan, Ukraina, Letonia, Bielorrusia, Kroazia, Estonia, Espainia, Hungaria, Suedia, Austria eta Suitzako akordeoilariak parte hartu dute, besteak beste.
- Aurten, 13 parte-hartzaile ditugu, herrialde hauetakoak: Euskadi, Txina, Bulgaria, Eslovakia, Serbia, Finlandia, Errusia, Eslovenia, Espainia, Lituania, Katalunia, Austria eta Frantziako.

- Aurtengo epaimahaia hurrengo nazioartean zona handia duten akordeoi joleek osatuko dute: Vincent Lhermet (Frantzia), Stefan Hussong (Alemania), Mateja Zenzerovic (Euskadi - Katalunia), Bjarke Mogensen (Danimarka), Veli Kujala (Finlandia) eta Claudia Buder (Alemania).

II "ARRASATE HIRIA" NAZIOARTEKO AKORDEOI ETA GANBERA MUSIKAKO LEHIAKETA

- Ganbara musikako goi mailako proiektuak nazioarteko eszenan aurkeztu nahi dituzten nazioarteko akordeoia daramaten taldeentzat erreferentziazko lehiaketa berria.
- Lehiaketak bi fase izan ditu: lehenengo Online fasea, aurre selekzio gisa, eta finalera joango diren 5 talde.
- Azken fasea abenduaren 6an izango da, larunbata, 16:30etatik aurrera Kulturaten.
- Polonia, Portugal, Alemania, Kroazia, Euskadi eta Espainiako 5 taldek hartuko dute parte.
- Epaimahaia hurrengoek osatuko dute: Claudia Buder (Alemania), Mateja Zenzerovic (Euskadi - Katalunia), Stefan Hussong (Alemania) eta Veli Kujala (Finlandia).

XLV GIPUZKOA AKORDEOI-LEHIAKETA

- Gipuzkoa, Euskal Herria eta estatu guztiko parte-hartzaileak. XLIV edizio hauetan, Asturias, Aragoi, Galizia, Murtzia, Nafarroa, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Katalunia, Madril, Kantabria, Errioxa eta Euskal Herri osoko akordeoilariak izan ditugu urteetan zehar.
- Hiru mailaz osatua: Haur Maila (14 urtera arte), Junior Maila (14-17 urte bitartekoa) eta Seniorra (18tik gorakoa). Nazioarteko lehiaketa garrantzitsuen egitura berberarekin.
- Espainiar estatuan antolatzen diren akordeoi lehiaketen artean ezagunena da.
- Bere pedagogia-oinarria goi-mailakoa da, eta batez ere kontserbatorioetako mailen beharretara egokitua dago.
- Aurten, 25 parte-hartzaile ditugu, jatorri hauetakoak: Euskadi, Aragoi, Kantabria, Katalunia, Asturias, Galizia, Nafarroa, Asturias eta Murtziako

XXXVII GIPUZKOA AKORDEOI-JAIALDIA

- Izaera hezitzailea eta ez-lehiakorra.
- Bakarlari, ganbera-musika taldeentzat edota ensembleentzat maila desberdinak daude, eta helduentzat maila berri bat ere aurkezten da aurtengoan.
- Hamabi mailaz osatua, adina eta ezagutzaren arabera antolatuak.
- Aurten, 370 parte-hartzaile.

ARRASATEKO JAIALDIAREN EGITURA

- Arrasateko Lehiaketetako atal eta mailak, piramide-egitura bati jarraituz pentsatuak eta garatatuak daude.
- Ibilbide pedagogiko osoa betetzen dute, bai mailai bai adinei dagokienez, ikasleek instrumentuarekin duten lehen kontaktutik, mundu profesionalean murgildu arte, haien garapen naturala eta hobekuntza musikala erraztuz eta bultzatuz.
- Ikasleen musika-hezkuntzaren alderdi ezberdinetan arreta jartzen dute, bakarkako interpretazioari zein talde ezberdinetan egiten denari erreparatuz.
- Musika estilo ezberdinak kontuan hartzen dituzte, folk musika, jazz, klasikoa edota garaikidea barne hartu

DATAK

- 2025ko abenduaren 5tik 7ra.

EKITALDIEN TOKIAK

- Arrasateko Amaia Antzokia.
- Juan Arzamendi Musika Etxea
- Arrasateko Kulturete.

NAZIOARTEKO EPAIMAHAIKIDEAK

- Veli Kujala (Finlandia): kontzertista eta Sibelius Academyko irakaslea (Finlandia).
- Mateja Zenzerovic (Euskadi - Katalunia): kontzertista eta irakaslea Kataluniako Goi Mailako Musika Eskolan (ESMUC)
- Claudia Buder (Alemania): kontzertista eta irakaslea Weimarko Franz Liszt Musika Unibertsitatean.
- Bjarke Mogensen (Danimarka): nazioarteko kontzertista.
- Stefan Hussong (Alemania): kontzertista eta Wurzburgeko (Alemania) Musika Eskolako irakaslea.
- Vincent Lhermet (Euskadi): kontzertista eta Parisko (Frantzia) Goi Mailako Kontserbatorioko irakaslea.

BESTE EKITALDIAK

- Sei kontzertu eta master eskola, azaroaren 29tik abenduaren 5ra, **Vladimir Stupnikov**-en eskutik (Alemania), **"Arrasate Hiria" Nazioarteko XXXI. Akordeoi Lehiaketaren irabazlea**, gure erkidegoko hainbat herritan eta eta erkidegotik kanpoko beste txoko batzuetan.
- Tokiko agintariek harrera ofiziala egingo diete lehiakideei eta nazioarteko epaimahaiari Arrasateko Udaletxean abenduaren 6an, ostiralean, 13:00etan.
- Akordeoi kontzertua Arrasateko Abaroa Jubilatuen Etxean, Fisarmonica en Blues taldearen eskutik.
- Kalejira Arrasateko kaleetan zehar abenduaren 6an goizez, Arrasateko Udalaxpe txistularien eskutik.
- **Arrasateko Akordeoi Lehiaketen bukaera-ekitaldia** eta **Gipuzkoa XLV Lehiaketaren** eta **"Arrasate Hiria" XXXII Nazioarteko Lehiaketaren** sari-banaketak. Maila bakoitzeko irabazleen izenak esango dira eta sarituen emanaldiak izango ditugu. Ekitaldi hau **abenduaren 7an**, igandea, izango da, **20:00etan** Amaia Antzokian, eta **Aldapeko Basque Latin Jazz taldearen** emanaldi txikiak entzun ahal izango dira ekitaldian zehar.

III. EGITARAUA / PROGRAMA

	"ARRASATE HIRIA" CHAMBER & SOLISTS	XLV GIPUZKOA LEHIAKETA	XXXVII GIPUZKOA JAIALDIA
OSTIRALA 5	AMAIA ANTZOKIA 09:00 Lehen fasea 16:00 Lehen fasea KULTURATE 20:00 Vladimir Stupnikoven kontzertua	KULTURATE 15:30 Senior Maila Kanporaketa Fasea	
A	13:00 Ongi etorri ofiziala udaletxean		
U	KULTURATE 16:30 "ARRASATE HIRIA" Chamber Music with Accordion International Competition Azken Fasea		AMAIA ANTZOKIA 08:30 A Maila 10:15 C Maila 15:00 Jaialdiko sari banaketa ekitaldia 16:15 D Maila 18:45 Ensemble Instrumentalak 20:00 Jaialdiko sari banaketa ekitaldia
A			KULTURATE 08:45 2 Hastapena 10:00 1 Hastapena 11:00 B Maila 13:00 Helduen Maila
R			JUAN ARZAMENDI MUSIKA ETXEA 08:30 3 Hastapena 10:15 Ganbera Musika 3 12:00 Ganbera Musika 2 13:30 Ganbera Musika 1 17:00 Talde instrumentalak
A			AMAIA ANTZOKIA 20:00 Jaialdiko sari banaketa ekitaldia
T			
I			
G			
E			
LARUNBATA 6			
IGANDEA 7	AMAIA ANTZOKIA 09:00 Azken fasea	KULTURATE 09:00 Senior Maila Azken Fasea 15:30 Gazte Maila JUAN ARZAMENDI MUSIKA ETXEA 09:00 Haur Maila	
	20:00 GIPUZKOA LEHIAKETAKO ETA NAZIOARTEKO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA EKITALDIA		

2025

ARRASATEKO AKORDEOI JAIALDIA

IV. SARIAK / PREMIOS

SARIAK PREMIOS

Arrasate Hiria Nazioarteko XXXII. Lehiaketa *XXXII Certamen Internacional Arrasate*

SARIA 1º PREMIO

4.000 €, diploma, garaikurra eta kontzertu-bira / 4.000 €, diploma, trofeo y gira de conciertos

SARIA 2º PREMIO

2.000 €, diploma, garaikurra eta kontzertu-bira / 2.000 €, diploma y trofeo

SARIA 3º PREMIO

1.000 €, diploma, garaikurra eta kontzertu-bira / 1.000 €, diploma y trofeo

"Arrasate Hiria" Nazioarteko Akordeoi eta ganbara Musikako II. Lehiaketa *II Certamen Internacional de Música de Cámara con Acordeón "Arrasate Hiria"*

SARIA 1º PREMIO

I. "Arrasate Hiria" Nazioarteko Akordeoi eta Ganbara Musika Lehiaketako "SGAE saria"

1.500 €, diploma eta garaikurra / 1.500 €, diploma y trofeo

AIPAMEN BEREZIA / MENCIÓN ESPECIAL

I. "Arrasate Hiria" Nazioarteko Akordeoi eta Ganbara Musika Lehiaketako "SGAE aipamen berezi saria"

650 €, diploma eta garaikurra / 650 €, diploma y trofeo

GipuzkoaXLV. Lehiaketa *XLV Certamen Gipuzkoa*

Categoría Infantil Maila	Categoría Junior Maila	Categoría Senior Maila
SARIA 1º PREMIO 200 €	SARIA 1º PREMIO 400 €	SARIA 1º PREMIO 800 €
SARIA 2º PREMIO 150 €	SARIA 2º PREMIO 300 €	SARIA 2º PREMIO 500 €
SARIA 2º PREMIO 100 €	SARIA 2º PREMIO 200 €	SARIA 2º PREMIO 300 €

Gipuzkoa XXXVII. Akordeoi Jaialdia *XXXVII Festival Gipuzkoa*

GANBERA MUSIKA I	MÚSICA DE CÁMARA I	100 €
GANBERA MUSIKA II	MÚSICA DE CÁMARA II	150 €
GANBERA MUSIKA III	MÚSICA DE CÁMARA III	200 €
ENSENBLE INSTRUMENTALAK	ENSEMBLES INSTRUMENTALES	250 €
TALDE INSTRUMENTALAK	AGRUPACIONES INSTRUMENTALES	300 €

* Dominak, diplomak eta oroigarriak parte-hartzaile guztientzat

* Medallas, diplomas y recuerdos para todos los participantes

ARRASATEKO AKORDEOI JAIALDIA

2025

V. KONTZERTUAK / CONCIERTOS

VLADIMIR STUPNIKOV / SENS Duo

KONTZERTU BIRA / GIRA DE CONCIERTOS

Azaroak 29 / 29 Noviembre

Vilassar de Mar (Bartzelona, Katalunia).
Vilassar de Mar (Barcelona, Cataluña).

Abenduak 01 / 01 Diciembre

Alcañizeko Gazteluko San Juan de Lanuza Aretoa (Alcañiz, Teruel).
Sala Juan de Lanuza del Castillo de Alcañiz (Alcañiz, Teruel).

Abenduak 02 / 02 Diciembre

Teruelgo Apezpikuen Jauregiko klaustroa, (Teruel).
Claustro del Palacio Episcopal de Teruel.

Abenduak 03 / 03 Diciembre

Masterclass + kontzertua. J.C. Arriaga Kontserbatorioa (Bilbo, Euskadi).
Masterclass + concierto. Conservatorio J.C. Arriaga, (Bilbao, Euskadi).

Abenduak 04 / 04 Diciembre

Masterclass + kontzertua. Jesus Guridi Kontserbatorioa (Gasteiz, Euskadi).
Masterclass + concierto. Conservatorio Jesus Guridi, (Vitoria, Euskadi).

Abenduak 05 / 05 Diciembre

Kulturte Kultur Etxea, (Arrasate, Euskadi). 20:00
Kulturte Casa de Cultura (Mondragón, Euskadi).

BESTELAKO JARDUERAK / OTRAS ACTIVIDADES

Abenduak 04 / 04 Diciembre

DUO FISARMONICA EN BLUES

Arrasateko Abaroa Jubilatuen Etxean / 19:00
En el Hogar del Jubilado "Abaroa" de Arrasate

Abenduak 05 / 05 Diciembre

Eibarko Musika Eskolako Akordeoi Ikasleen kalejira Arrasateko kaleetatik. Irakaslea: Marisol Arrillaga / 12:00
Kalejira por las calles de Arrasate de la mano del alumnado de Acordeón de la Escuela de Música de Eibar.
Profesora: Marisol Arrillaga

Vladimir Stupnikoven Kontzertua (Kulturte Kultur etxea) 20:00
Concierto de Vladimir Stupnikov (Casa de cultura Kulturte)

Abenduak 06 / 06 Diciembre

Arrasateko txistularien kalejira / 12:00
Kalejira de los txistularis de Arrasate

Arrasateko Udaletxean ongi etorri ofiziala 13:00
Recepción oficial en el Ayuntamiento de Arrasate

Kontzertuak eta bestelako jarduerak / Conciertos y otras actividades



VLADIMIR STUPNIKOV

BIOGRAFIA / BIOGRAFÍA

Vladimir Stupnikov nazioarteko 30 lehiaketa baino gehiagotan sariduna izan da, eta konpositore garaikideekin lankidetzan estuan aritzen da, 20 estreinaldi baino gehiago egin dituelarik. Horrez gain, SenS Duoko kide da. 1996an jaio zen, Ufan. 2019an N. A. Rimsky-Korsakov San Petersburgoko Estatu Kontserbatorioan graduatu zen (Alexander Dmitriev irakaslearekin). 2024an Gnessim Errusiako Musika Akademian graduatu zen (Friedrich Lipsekin). Gaur egun, Würzburgoko Musika Unibertsitatean ikasten ari da (Alemania, Stefan Hussong irakaslearen eskutik).

Vladimir bekaduna da Alemaniako Truke Akademikarako Zerbitzuan (DAAD) eta Hainbat akordeoi lehiaketa ospetsuetan sariak lortu ditu, besteak beste: 1. saria – Nazioarteko Klingenthal Lehiaketa (2014) (Klingenthal, Alemania); International Trophée Mondial de l'Accordéon (2015) (Martigny, Suitza); Errusiar Musikaren II. Lehiaketa (2017) (Mosku, Errusia); International Coupe Mondiale (2017) (Osimo, Italia); Monseko Nazioarteko Lehiaketa (2017) (Mons, Belgika); Nazioarteko 43. PIF Castelfidardo Lehiaketa (2018) (Castelfidardo, Italia); Nazioarteko XXXI. Arrasate Hiria Lehiaketa (2024) (Arrasate, Espainia).

Gaur egun, bere trebetasuna etengabe hobetzen du eta Errusian eta Europan kontzertu-emanaldietan aritzen da. Areto ospetsuetan aritu da, hala nola Mariinsky Antzokian, P. I. Tchaikovsky Concert Hallen, San Petersburgoko Filarmónikoko Areto Txikian, baita Suitza, Austria, Portugal, Belgika, Lituania, Eslovakia, Txekiar Errepublikak, Italia, Serbia, Alemania, Estonia, Finlandia eta Frantzia ere.

Vladimir Stupnikovek estreinaldi ugari egin ditu, besteak beste, Andreas Urevskyren akordeoirako "Schneekraniche" pieza, berari eskainia (Ehrbar Saal, Viena, Austria, 2024). Universal Edition argitaletxearekin elkarlanean aritzen da.

Kontzertuak eta bestelako jarduerak / *Concertos y otras actividades*

Vladimir Stupnikov ha sido premiado en más de 30 certámenes internacionales y colabora estrechamente con compositores contemporáneos, con más de 20 estrenos. También forma parte del Duo SenS. Nació en 1996 en Ufa. En 2019 N. A. Rimsky-Korsakov se graduó en el Conservatorio Estatal de San Petersburgo (con el profesor Alexander Dmitriev). En 2024 Gnessim se graduó en la Academia Rusa de Música (con Friedrich Lips). Actualmente estudia en la Universidad de Música de Würzburg (Alemania, de la mano del profesor Stefan Hussong).

Vladimir es becario del Servicio Alemán de Intercambio Académico (DAAD) y ha obtenido premios en prestigiosos certámenes de acordeón como: 1er Premio – Concurso Internacional de Klingenthal (2014) (Klingenthal, Alemania); International Trophée Mondial de l'Accordéon (2015) (Martigny, Suiza); II Premio de la Música Rusa Competición (2017) (Moscu, Rusia); International Coupe Mondiale (2017) (Osimo, Italia); Concurso Internacional de Mons (2017) (Mons, Bélgica); Internacional 43. Concurso PIF Castelfidardo (2018) (Castelfidardo, Italia); XXXI Concurso Internacional Concurso Arrasate Hiria (2024) (Arrasate, España).

Actualmente, mejora constantemente su habilidad y se dedica a actuaciones de conciertos en Rusia y Europa. Ha actuado en salas tan prestigiosas como el Teatro Mariinsky, el P. I. Tchaikovsky Concert Hall, el Salón Menor de la Filarmónica de San Petersburgo, así como en Suiza, Austria, Portugal, Bélgica, Lituania, Eslovaquia, República Checa, Italia, Serbia, Alemania, Estonia, Finlandia y Francia.

Vladimir Stupnikov ha realizado numerosos estrenos, entre ellos la pieza "Schneekraniche" para acordeón de Andreas Urevsky, dedicada a él (Ehrbar Saal, Viena, Austria, 2024). Colabora con la editorial Universal Edition.

VLADIMIR STUPNIKOV

EGITARAUA / PROGRAMA

Goldberg Variations, BWV 988 (Aria and Variations 1-14)

Johann Sebastian Bach (1685-1750)

Scheherazade, Symphonic Suite, Op. 35 (III. The Young Prince and Princess)

Nikolai Rimsky-Korsakov (1844-1908)

Siberian Cranes (Summer, Autumn)

Andreas Urevsky (1990)
(dedicated to Vladimir Stupnikov)

Malagueña from the Spanish Suite "Andalucía"

Ernesto Lecuona / Arkady Volodos
(Transcription for accordion by Yu. Shishkin)

AZKEN EDIZIOKO IRABAZLEAK GALARDONADOS DE LA ÚLTIMA EDICIÓN

Arrasate Hiria Nazioarteko XXXI. Lehiaketa *XXXI Certamen Internacional Arrasate Hiria*

1. **Vladimir Stupnikov** (Errusia)
2. **Luigi Gordano** (Italia)
3. **Zhang Naixin** (China)

"Arrasate Hiria" Nazioarteko eta Ganbara Musikako I. Lehiaketa *II Certamen Internacional de Música de Cámara con Acordeón "Arrasate Hiria"*

1. **Sens Duo** (Errusia)
2. **Dúo Nakté** (Euskadi / Espainia)

Gipuzkoa XLIV. Lehiaketa *XLIV Certamen Gipuzkoa*

Categoría Senior Maila

1. **Bela Brichzin**
2. **Naroa Otamendi**
3. **Domenico Raso**

Categoría Junior Maila

1. **Nicolás Florea**
2. **Sebastián Gabriel Gómez**
3. **Alejandra Do Camiño**

Categoría Infantil Maila

1. **Andrés García**
2. **Bertrán Labraña**
3. **Manuel Salas**

2025

ARRASATEKO AKORDEOI JAIALDIA

VII. ELKARRIZKETAK / ENTREVISTAS

Aurtengo parte-hartzaile eta irabazleez gain, Vladimir Stupnikov elkarrizketatzeko aukera izango da, aurreko urteko nazioarteko irabazlea, baita Arantza Agirre, Hauspoz-eko lehendakaria edo Maria Zubimendi, Hauspozeko koordinatzailea. Bai eta nazioarteko epaimahaikide ezberdinak, lehiaketetako egunetan zehar.

Además de a los participantes y ganadores de esta edición, habrá ocasión de entrevistar a Vladimir Stupnikov, vencedor de la pasada edición internacional, a la presidenta de Hauspoz, Arantza Agirre, o a la coordinadora de Hauspoz Maria Zubimendi, a los diferentes miembros del jurado internacional.

VIII. KOMUNIKAZIOA / COMUNICACIÓN

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarte

(Maria Zubimendi)

hauspoz@hauspoz.org

616 843 350

Arrasateko Akordeoi Jaialdia

Babesleak/ Patrocinadores



fundación  sgae fundazioa

Antolatzailea/ Organiza



www.hauspoz.org - hauspoz@hauspoz.org